

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2017ko martxoaren 30ean aurkeztuko du

Pierre Huyghe: (*Titulurik gabea*) Giza maskara

Pierre Huyghe: (*Titulurik gabea*) *Giza maskara*

- Datak: 2017ko martxoak 30–uztailak 16
- Komisarioa: Manuel Cirauqui
- Film & Video aretoa (103)

Pierre Huyghe-ren (*Titulurik gabea*) *Giza maskara* [(*Untitled*) *Human Mask*, 2014] hartuko du Guggenheim Bilbao Museoak 2017ko martxoaren 30etik uztailaren 16ra; lan hori lehenbiziko aldiz aurkeztuko da Espainian. Bideoarte, bideoinstalazioa eta irudia mugimenduan darabiltzaten artelanak erakusteko 2014an ireki zenetik Film & Video aretoan ikusgai ipintzen den hamargarren artelana da.

Pierre Huyghek (Paris, 1962) 2014. urtean sortu zuen (*Titulurik gabea*) *Giza maskara* [(*Untitled*) (*Human Mask*)], Japoniako sake-etxe tradizional batean bezeroez arduratu eta haiek entretenitzen zituzten etxekotutako bi tximinoren benetako historia ezagutu ostean. Huyghe filmaketa inguru mortu batean kokatzen da; gertatu berri zen tsunamiak eta Fukushima hondamendi nuklearrak eraitutako etxeak bereizi ditzakegu bertan. Eraikin goibel baten barruan zehar biztanle bitxi bat dabil: antzerki-maskara japoniar tradizionala, emakume-ileorde bat, alkandora zuria eta eskolako uniforme baten antzeko soineko ilun bat daramatza soinean. Tximino bat den arren, jarrera arretatsu eta irrikatsuak, bai eta gorputz-hizkerak ere, gizatasun anbiguo bat dakarkigu gogora. Huyghek dekoratu irreal batean animalia baten jokabidea aztertzearen paradoxa lantzen du, errealitatea arakatzeko; finean, giza kondizioa.

Filmaren hasieran dron batek grabatutako irudien bidez, kokalekua azaltzen zaigu, eraikin aurriz betea. Hutsik dauden etxe horien barrura sartzen da kamera eta izaki horren lehen planoen gainjartzea erakusten digu; tximinoaren mugimenduak are eta urduriagoak dira. Hutsik dagoen jatetxe bat den arren, animaliak zalantzarik egin gabe burutzen ditu ikasitako eginkizunak: ezpainzapiak arretaz jartzen eta botilak zerbitzatzen ikus dezakegu, baita jatetxeko bezeroei barrea eta harridura eragingo dien itzulipurdi berberak egiten ere. Suntsitutako inguru horretako bizidun bakarrak dira tximinoarekin dauden katu bat, sukaldean alde batetik bestera dabiltzan labezomorroak eta hondamendia gertatu zen egunetik bertan zabalik geratutako janari-poltsetan ugaltzen diren zizareak. Nonbaitetik iristen zaigun emakume ahotsak bere momentuan jendeari hondamendiaren gertutasunaren berri eman zioten abisuak gogora ekartzen dizkigu, baina guk entzuten dugun ahotsa beste ezbehar baten iragarpena da, akaso. Maskararen higiezintasunak are gehiago azpimarratzen du animalia alienazioa, eta haren sentimenduak eta emozioak zalantzan jartzera eramaten gaitu.

Bere lan askotan Pierre Huyghek fikzioaren eta errealitatearen arteko mugak ezabatzen ditu gizakien naturarekin eta gure portaeraren misterioarekin aurrez aurre jartzen gaituzten pertsonaiak erabiliz. Filmaren protagonistak bere giza-maskararen atzetik begiratzen digu, gu ikusi gabe, eta guk harriduraz begiratzen diogu haren jokabideari, gurekin mundua partekatzen duten izaki horien jokabideari.

Pierre Huyghe

Pierre Huyghe Parisen jaio zen 1962an eta hiri horren eta New Yorken artean bizi da. Hasieran, arte grafikoetan eta dekoratiboetan trebatu zen Parisen, eta arte-bitartekoen eta artelanaren eta hura inguratzen duen munduaren arteko harremanen inguruan egin duen etengabeko gogoetak bihurtu du nazioarteko artista gailenetako bat. Hogei urtetik gorako ibilbidean diziplina ugari jorratu eta birdefinitu ditu, besteak beste, zinema, argazkilaritza, bideoa, soinua, animazioa, eskultura, diseinua, arkitektura, musika eta performancea.

Huygheren instalazioak, bideoak eta ekitaldi publikoak era guztietako errealitateak barne hartzen dituzte: herri txiki bateko desfile bat, txotxongiloen antzerki bat, jolas parke bat zein Antartidarako espedizio bat. Artistak herri kulturako narrazioen egiturak eta fikzioaren eta errealitatearen, memoriaren eta historiaren arteko loturak aztertzen ditu. Izan ere, fikzioaren eta errealitatearen arteko mugak ezabatzen ditu haren lanetan, zinemak istorio pentsaezinak errealismoz betetzeko gaitasuna duela agerian ipintzeko. Gizarte gai konplexuak landu arren, besteak beste, utopia desioa, komunikabideen ikuskizun eta sentsazionalismo bilaketa eta gaur egungo sinesmen- eta balore-sisteman modernotasunaren eragina, osagai ludikoak eta ospakizunetakoak ere azaltzen dira.

Beste artista batzuekin ere lan egin du Huyghek —egiletasunaren usadiozko nozioa zalantzan jarri dute— eta munduko hainbat biurteko eta museo garrantzitsuetarako proiektuak garatu ditu, besteren artean, honako hauetarako: documenta 11 (2002) eta documenta 13 (2012), Estanbuleko Bienala (1999), Pittsburgeko Carnegie International (1999) eta Manifesta 2 (Luxemburgo, 1998). Banakako erakusketak egin ditu erakunde hauetan, besteak beste: Koloniako Ludwig Museum (2014), Los Angeles County Museum of Art (2014), New York The Artist's Institute (2013), Bartzelonako Museu d'Art Contemporani (2013), Parisko Centre Pompidou (2013), Mexiko Hiriko Museo Tamayo Arte Contemporáneo (2012), Madrilgo Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, Art Institute of Chicago (2010), Londresko Tate Modern (2006), Stockholmeko Moderna Museet, Dublingo Irish Museum of Modern Art (2005), New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum (2003), Eindhovengo Stedelijk Van Abbemuseum (2001), Chicagoko Museum of Contemporary Art (2000) eta Musée d'Art Moderne de la Ville de Paris (1998). Veneziako Bienalean epaimahaiaren sari berezia jaso zuen, Frantziako Pabilioia dela eta (2001), Smithsonian American Museum's Contemporary Artist Award saria ere eman diote (2010), baita Roswitha Haftmann Preis (2013) ere.

Film & Video (103. aretoa)

Film & Video aretoa bideoarteari, bideoinstalazioari eta irudia mugimenduan darabilten lanei eskainitako gunea da; bertan biltzen dira nola Guggenheim museoetako artelanak, hala nazioarteko beste bilduma batekoak. Areto honetako programazioa 2014ko martxoan hasi zen Christian Marclayren *Erlouja* (*The Clock*, 2010) instalazioaz; ondoren, berriz, Ragnar Kjartansson artista islandiarrak *Bisitariak* (*The Visitors*, 2012) instalazioa aurkeztu zuen; 2014ko urritik 2015eko martxora, Rineke Dijkstra-ren *The Krazyhouse* (*Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee*) Liverpool, UK bideoinstalazioa ikusteko parada izan genuen; urte horretako martxotik eta uztaile arte, *Hariaren ibilbideak* (*Thread Routes*, 2010) deitutako Kimsooja artista kontzeptualaren seriea ikusi ahal izan genuen. Hurrengo artelana, Shahzia

Sikander-en *Paralajea* (*Parallax*, 2013) izan, 2015eko azaro arte ikusgai izan zena; ondoren *Ezagutzen ez denaren hodeia* (*The Cloud of the Unknowing*) etorri zena, Singapur-eko Ho Tzu Nyen artistarena, abenduaren 3tik 2016ko apirilaren 24ra ikusgai egondakoa. Eija-Liisa Ahtilaren *Deikundea* (*The Annunciation–Marian Illmestys*), 2016ko maiatzaren 12tik abuztuaren 28ra ikusgai izan zena. Ondoren, Sam-Taylor Johnson-en *Hasperena* (*Sigh*, 2008), 2016ko irailaren 8tik abenduaren 11rarte; eta ikusgai egon den azten artelana Fiona Tan-en *Ekialdeari begira, galduta* (*Disorient*, 2009) izan da, abenduaren 22tik 2017ko martxoaren 19rarte.

Azaleko irudia:

Pierre Huyghe

(*Titulurik gabea*) *Giza maskara* [(*Untitled*) *Human Mask*, 2014]

Koloretako filma, soinuduna, 2:66 formatua. Iraupena: 19 min

Hauen eskaintza: artista, Hauser & Wirth, Londres; eta Anna Lena Films, Paris

© Pierre Huyghe, VEGAP, 2017

Argibideak:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia www.guggenheim-bilbao.eus duzu eskueran (prentsa-eremua).

Imágenes para uso de prensa
Pierre Huyghe (*Titulurik gabea*) *Giza maskara* [(*Untitled*) *Human Mask*]
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.


Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Pierre Huyghe

(*Titulurik gabea*) *Giza maskara* [(*Untitled*) *Human Mask*, 2014]

Koloretako filma, soinuduna, 2:66 formatua. Iraupena: 19 min
Hauen eskaintza: artista, Hauser & Wirth, Londres; eta Anna Lena Films, Paris

© Pierre Huyghe, VEGAP, 2017



Pierre Huyghe

(*Titulurik gabea*) *Giza maskara* [(*Untitled*) *Human Mask*, 2014]

Koloretako filma, soinuduna, 2:66 formatua. Iraupena: 19 min
Hauen eskaintza: artista, Hauser & Wirth, Londres; eta Anna Lena Films, Paris

© Pierre Huyghe, VEGAP, 2017




Pierre Huyghe

(*Titulurik gabea*) *Giza maskara* [(*Untitled*) *Human Mask*, 2014]

Koloretako filma, soinuduna, 2:66 formatua. Iraupena: 19 min
Hauen eskaintza: artista, Hauser & Wirth, Londres; eta Anna Lena Films, Paris

© Pierre Huyghe, VEGAP, 2017



Pierre Huyghe

(*Titulurik gabea*) *Giza maskara* [(*Untitled*) *Human Mask*, 2014]

Koloretako filma, soinuduna, 2:66 formatua. Iraupena: 19 min
Hauen eskaintza: artista, Hauser & Wirth, Londres; eta Anna Lena Films, Paris

© Pierre Huyghe, VEGAP, 2017

